

Tutoretza

Lehen Hezkuntzako 6. maila:

URA: GIZA ESKUBIDEA

1. ariketa

- Zer dira eskubideak? Eta betebeharrak?
Idatzi zure eskubideen eta betebeharren adibideak.

ESKUBIDEAK	BETEBEHARRAK
Eskolara joatea	Ikastea
Familia bat izatea	Familiari obeditzea eta errespetatzea
Jolastea	Denekin jolastea
Parte hartzea	Besteen iritziak errespetatzea
Babesa eta zaintza	Laguntza behar duenari laguntzea
Berdintasunerako eskubidea izatea, eta diskriminaziorik ez jasatekoa	Ikaskide guztiak errespetatzea
Leku garbi eta osasuntsu batean bizitzea	Ingurumena zaintzea

- Denon artean, eskubideak eta betebeharrak zer diren azalduko duen definizio bat landuko dugu.

Eskubideak: gure garapena eragotzi dezaketen egoeretatik babesten gaituzten arauak dira. Guztiok jakin behar dugu zein diren gure eskubideak, lotura estua dutelako gure erantzukizun eta betebeharrekin, besteekiko nahiz gure inguruarekiko.

Betebeharrak: pertsona bakoitzak bere gain hartzen dituen zereginak eta obligazioak dira. Ez dira gure onerako bakarrik, baita besteen onerako ere.

3. ariketa

- Ura giza eskubideen zerrendan sartzea ez da lan erraza izan.

Irakurri arretaz testu hau.
Testua: “Bolivia eta Uraren Gerra”.

- Boliviaren kasuan, ez zen betetzen lehen aipatutako bost baldintzetako bat: nahikoa, osasungarria, edangarria, eskuragarria eta arrazoizko prezioa. Badakizu zein?

Arrazoizko prezioa: Boliviako presidenteak hartutako erabakiak luxuzko ondasun bihurtu zuen ura.

Nazio Batuen Erakundearen arabera, ur hornidura eta saneamendu zerbitzuen kostuek ez dute gainditu behar etxeko diru sarreren % 5a. Horrela, zerbitzu horiek ez dute eraginik izan behar oinarrizko beste produktu eta zerbitzuak eskuratzeko ahalmenean: elikadura, etxebizitza, osasun zerbitzua eta hezkuntza.